



Eider Bernaola, joan den asteen hitzaldi bat eman zuen Orbain elkarteetan. Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

infraganti

EIDER BERNAOLA

Ikasketek eraman zuten argazkigintzara eta gaur egun horixe du 23 urteko gasteiztarrak lana eta grina. Irudien munduan estereotipo patriarkalak nagusi direla dio, eta horren aurka egiten du berak, zerbait desberdina egiten saiatuz, ikusmolde feminista txertatuz eta mundu horretako profesionalei jarrera etiko eta arduratsua eskatuz.

Bere leku profesional eta bitala bilatu eta aurkitu egin zuen. Diseinu Grafikoa ikasten hasi zen Euskal Herriko Unibertsitatean, baina alde batera utzi eta Publizitatera salto egin zuen. Ikaske-

tak bukatzerako, argi zuen argazkigintza zela bere leku hori. Eta 23 urteko gasteiztar honek jada bere ibilbidetxoa egin du lana eta grina dituen horretan. Hasieran autorretratuak eta lagunen argazkiak egiten zitu-
tuen. Noizbehinka, tabernaren batean, erakusketak antolatzen

zitu-
tuen. Gasteizko zenbait argazkilari profesionalen laguntzaile ere ibili zen, harik eta, iaz, bere enpresa sortu zuen arte. Jon Ander Iribarrenekin batera, Iriber argazki estudioa zabaldu zuen Gasteizko Prudencio Maria Berastegi kalean.

Oso lanpetuta dabilta, «zorionez», aspaldi honetan, besteak beste antolatzen dituzten *workshop* edo tailerrak direla-
eta, baina tartetxo bat hartu du-
te Jon Ander bazkide den Orbain kultur elkarte-
an patxadaz hitz egiteko. Jon Ander inguruan dabil, baina ez du solasean parte hartu, hasieran izan ezik, Eiderren familiaren jatorria aipatu duenean, hain zuzen. Dimatik dator Eiderren familia, eta berehala Dimatik gertuko musikagile handi baten aipua ere azaldu da solasaldian: Carmelo Bernaola otxandiarrarena. Eiderrek ez du ezezagun, aitona-
ren anaia zuen eta.

Publizitate munduan dihardu, beraz, eta haren espezialitatea

eta benetan gogoko duena arte-
argazkigintza da, erretratuak eta biluziak, batez ere emakumez-
koenak.

«Biluzi-argazkigintza aipatze-
an, berehala datorkigu burura idea elkarketa bat: emakumea eta sexua», dio. Eiderren irizpi-
dea, ordea, arte eta genero ikus-
moldeek gidatzen dute. Haren ustez, feminismoaren ikusmol-
dea ezinbestekoa da, edozein ar-
lotan, «areago publizitate mun-
duan».

Artearen historiaren errepaso arin bat eginda, ondorio bat agertzen du: emakumea gizonaren galbide gisa irudikatu izan da, edo jarrera otzanean, men-
dean, ziurtasunik gabe. Irudiak emakumearen estereotipo horri eusteko erabili izan dira, haren sexualitatea ere kontrolatzeko. Izan ere, Eiderrek dioenez, este-
reotipoa nagusi da irudien munduan: gizona jarrera akti-
boan eta emakumea pasiboan, «garbia» eta «behar bezalakoa» izateko; hau da, asmatutako hainbat kontzepturen arabera-
koa izateko. «Argazkiaren objek-
tibatutasuna errotiko gezurra da», jarraitzen du Eiderrek, «kamera-
ren objektiboaren atzean dagoenak erabakitzen du, bere pentsa-
moldearen arabera, ustezko objek-
tibatutasun hori».

Eta historian zehar bezala, gaur egun ere irudiak gizonaren atsegina bilatzen duela dio. Munduko argazkien %80en motiboa emakumeak eta ume-
ak omen dira. Gehienak gizonen eginak eta gizonen desioak ase-
tzeko. Eta emakumearen gorputz biluzia ehiztariaren trofeo go-
rena da. Eiderren ustez, ber-
riz, argazki kamera ez da, ez lu-
ke izan behar, nahi den guztia «harrapatzeko» kutxa. Izan dira, jakina, emakume argazkilariak eta artistak oro har, baina ahanzturan daude edo, onene-
an, gizonak baino ikusezinagoak dira.

Irudiak sortzeko modu ezber-
din baten beharra ikusarazteko, gogorarazten du publizitatean, eta filmetan, ohikoa dela ema-
kumeen aurkako bortizkeria irudikatzea eta nolabait «nor-
maltzat» ikusten dela. Mundu hori gizartearen isla dela onar-



Azaroan Medina Photo Experience nazioarteko jaialdian hitz egingo du Eiderrek eta bere lanak ikusgai ere egongo dira. Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

tzen du, baina, halaber, jarrera hori sustatu egiten duela dio. «Sorgin gorpila da».

Horregatik uste du publizitatearen eta oro har irudien munduko profesionalek arduratsu jokatu behar dutela sortzeko garaian, gizarteari ekarpen bat egiteko ardura dutela. Eta irudi horien kontsumitzaileek ere ba omen dute erantzukizun hori; «irudiak irakurtzen ikasi beharra dago».

Argi utzi nahi du Eiderrek bere ikuspegi feminista, inoiz publizitatearen munduan negozio-rako «kaltegarria» izan litekeela ohartarazi badiote ere. Berak ez du zalantzarik egin, ordea, «emakumea naizelako» eta bizi izan dituen zenbait esperientzia pertsonal latzek hartaratuta. Lan egiten duen munduak muga batzuk ezartzen dituela onartuta ere, ez du bere konpromisoa ezkututzen eta zerbait desberdina egiten saiatzen da, betikotik, batez ere estereotipo

patriarkaletatik aldenduz, aniztasuna bilatuz. Zerbait freskoa. Kalitatekoa, artistikoa, pertsonalizatua, bezeroaren helburuen eta balioen arabera, baina betiere edozein irudi sexistak edo iraingarri arbuiauta.

Hori da Eiderren eta Iriber enpresaren konpromiso etikoa.

Esan bezala, biluziak ditugogokoen, baina alde artistikoa interesatzen zaio, erotismoa baztertzen ez badi ere. Erotismoa ez, baina bai publizitate munduan dagoen «hipersexualizazioa». Horretaz jardun zuen joan den astean “Biluzi-argazkigintza... begi feministetatik” hitzaldian. Dato-

«Argazkiaren objektibotasuna errotiko gezurra da; kameraren objektiboaren atzean dagoenak erabakitzen du, bere pentsamoldearen arabera, ustezko objektibotasun hori»

Argi utzi nahi du bere ikuspegi feminista, inoiz publizitatearen munduan negozio-rako «kaltegarria» izan litekeela ohartarazi badiote ere. Berak ez du zalantzarik egin, ordea

rrren azaroan, berriz, Medina del Campoko (Valladolid) Medina Photo Experience nazioarteko argazki jaialdian parte hartuko dute Eiderrek eta Jon Anderrek “Emakume ikusmoldeko biluzia” *workshop* edo tailerra emanez, eta jaialdian ikusgai egongo den “Mujeres y punto” erakusketan Eiderren argazkiak ikusgai egongo dira.

Gasteizko argazkilaria, gainera, jaialdiko protagonistetako bat izango da, argazkigintzari buruzko bere ikusmolde feministaz hitz egiteko ere gonbidatu dute eta.

Eiderrek modelo lanak egin izan ditu, tartean zenbait biluzi,

eta bere esperientzia gehienak ez direla onegiak izan dio. Behin baino gehiagotan, emaitza ikus-tean, ez omen zuen bere burua ezagutzen. Seguruenik eragina du Eiderren eskarmentuak bere modeloekin duen tratuan. Saiotan, batez ere tailerretan, beti egiten du tarte bat modeloak nahi duenaz hitz egin dezan. «Modeloak pertsonak dira, ez objektuak, beren intimitatea oparitzen ari zaizkizun pertsonak». Hortaz, beharrezkotzat jotzen du haiekiko akordioa, are konplizitatea ere. «Konexioa». Eta hala moduzko esperientziak izan badiote ere, bidean du proiektu bat beste argazkilarik gasteiztar batekin, Maialen Bermudezekin («oso ona!»), Eider modelo izango dena.

Argazkilariaren begirada. Eider Bernaolaren begirada konprometitua. Argazkilaria feminista. Feminista argazkilaria. •

Xabier Izaga Gonzalez